"Bordari" idazlearen gorazarrez

Fernando Artola Sagartzazu, euskal literaturan "Bordari" izenordez hain ezaguna dugunari, hil honen 16an, Hondarribiko herriak, ongi merezia zuen omenaldia eskaini zion. Zorionekoa bere seme leial bat goraipatzen dakien herria.

Neretzat ohoregarri izan zen adiskide on bati buruz mintzatzea. Hala ere, atortu dezadan, nere hitz eta eritzi apalak baino zerbait gehiago merezi zuela gure Bordarik, ez bai zait erraza bere literatur ahalmenak behar haina baliatzea. Dean dela, omenaldiko hitzen ildotik doa gaurko artikulu hau.

Hiru gai baliatuko nituzke Bordarik euskal kulturgintzara eskaini dituenetan; duela hogeitahamar edo hogeitahamabosten bat urte erdarazko kazetaritzan euskal kulturaren zabalkundez egin zuen lana,- gerraondoko bertsolari sariketa eta txapelketa antolatzen eta bizkortzen egin zuena, eta bereziki gaztetxotatik eten gabe euskaraz idatziz egin duena.

Fernando Artola, 1910eko otsailaren 14an sortu zen Hondarribian. La Salletarretan egin zituen bere ikasketak. Etxeko beharrez gaztetxorik lanari oratu beharra izan bazuen ere, berekiko ikasketeri eta irakurketeri inoiz ez zion ukorik egin eta oraindik mutikoa zen Donostiako **Argia** *eta* **El Dia** *egunkarietan idazten hasi zenean. Orduan hartu zuen idazle bideari jarraitu dio bere bizi guzian.*

Gerraondoko lehen urteetan, Emilio Mas irundarrak alde batetik eta "Bordari" izenpean Fernando Artolak sortu zuen "Nere bordatik" zeritzan sailean agertzen zituen artikuluak bestetik, euskal kulturaz agertzen ziren bakarretakoak genituen orduan gazteixo ginenon gogoak iratzartzeko. Garai haiek halakoak ziren eta badakigu "Bordari"rik nahikoa eragozpen izan zuela.

Garai hartan, eibartarrontzat ezagunagoa zen don Rafael, Eibarren apez zegoen Fernandoren anaia. Olerkaritzan zerbait nabarmendua, Axularren omenezko leihaketa batean Sarako herrian saritua. Bere apaltasunez lanak argitara eman ez dituena, baina idazle ona, eta Eibarren garai hartan euskal gramatika ikasteari ekin genien lehen gazte multzoaren maisua.

Baina, Bordariren beste ekintza ezagun bat gerraondoko bertsolari sariketa eta txapelketak antolatzea, lehen lehenik Atxukarrorekin bateratsu, eta, nonbait Hernandorenak mugazandik ekin zion lanari jarraitu nahirik. Baita ere, aitortu beharra dago, nori berea zor zaionez, lehen txapelketak A. Irigoyenek sortu zituela Bizkaian, gero (txapelketaz ari naiz eta ez sariketaz) Gipuzkoara pasatuko zena, 1959an Eibarren bertan Mogelen omenezko ospakizunetatik hasita. Bordarik, gai berriak eta biziak jartzen, giro berri bat bultzarazi zuen, bertsolaritza erberrituz. Horietakoa izan zen bertsolariak gai berdinarekin elkarren artean neurtu ahal izateko saioa ere, "kartzelakoa" deritzana.

Hala ere, euskal ekintzan, literaturan hartu zituen Fernando bere goi mailak, olerki eta ipuin sariketak irabaziz. Eta, literaturgintza horretan burutu duen gauzarik bereziena, itsas gaien erabilkera.

Poesia, ipuia, antzerkia eta eleberria landu ditu. Bere hizkuntza, zein batean edo zein bestean, oso bizkorra da. Gainera, naiz sentimenduzko unkigarritasunetik tristura eramateko eta naiz umore alaiz parre eragiteko, mutur batetik bestera dauden erdibidezko adierazpenak hari finez josten dakiela. Hala nabari da **Euzko-gogoa**, **Aránzazu**, **Olerti** , **Egan**,... *eta beste zenbait euskal aldizkaritan argitaratu dituen lanetan. Bi liburu argitaratuarren, oraindik bere idazlanik gehienak argitaratu gabeak dira; baina, laster, zorionez, Sendoa argitaldariak bi tomo handitan emango ditu, eta gure literaturarako altxor ederra izango da. Bere meritugatik aspaldi izendatua zen Euskaltzaindiko urgazle.*

Antzerkian, nik dakidanik, lan bat baizik eztu, **Tomasen buruusteak** *deritzana, umore gardenez, behin nere adiskide Paulino Larrañagak aurkeztua.*

Ipuletan agertu duen gatza eta piperra ezagunagoa zaigu. Saririk anitz eramana da jenero hontan. Era askotakoak idatzi ditu eta behar bada, orohar, olerkaritzarekin batean hor eman du bere literaturgintzako lanik aberatsena.

Olerkaritzan, liriko hutsa da, eta behar bada "Satarka" (Klaudio Sagartzazu) herkidea izan zuen aitapoñeko. Lasai esan genezake, olerkigintzat behintzat, bai xakontasunez eta bai zabaltasunez, beste inork ez duela hain egoki kantatu itsasgiroa. Naiz itsas-hegalaren ikuspegiak adieraziz edo naiz marinelen bizitzaz, Bordariren olerkigintza gure literaturaren gailurrean jartzeko da. Bai. Itsasoari eta itsas-gizonari bere etorriaren maitasunik sentikorrenak eskaini dizkio. Era berean hizkuntzaren aberasgarri. Bere lirika atsegina da, bai irudinemenez eta bai adierazpenez. Konparaketa grafiko bat egitea posible balitz, Arestiren erak Ibarrolaren pinturarekin lotuko nituzke eta Bordarirenak Bidasoa edo Txingudi inguruko Montes-Iturriozengandik Grazeneara arte doazen pintoreen konzeptu plastikoarekin. Bakoitza bere giroaren seme.

Poesiaz badu libiru bat idatzia: **Goraintzi** *(1968) deritzana, bere emazte hilari eskainia. Hemen ere, bere lan eta eikintzetan bezala, fedearen sendotasuna, gizarte inguruaren maitasuna eta bere betiko zentzutasuna nabari ditu. Hiletaz eta etsipendurik agertzen bazaigu lan hontan, ez zen gutiagorako, bere amorea eskaini zion emakumea, Henriette maitea, urterik larrienetan laguntzaile izan bai zuen.*

Behar bada, hizlauz edo prosarik ederrena eta aberatsena (hots, denak ez ditui ezagutzen, oraindik lan asko argitara gabe dituenez; bestalde, orain aipatuko dudan lana bere anai Rafaelekin elkar lanean egina da), orainartekoetan, oraintsu inprimategitik irten berri den **Aritz beraren adarrak** *(1982) deritzan eleberria dugu. Baina, hau, bere anai Rafaelen languntzaz egina da. Hala ere, estiloaren aldetik Fernandoren karga handia daroa. Eleberri hau, Hondarribian bertan kokaturik, bertako eta bertatik mundu zabalera idekirik, leiho batetik begira bezala ikus ditzakegu beren garaiko bizitza eta pasarteak, eguneroko eginkizunetatik sortzen den kronika bat balitz bezala, munduko gertakariak eta horien aurrez aurre, herriko xehetasunak bilduz, jendearen pentsamenak, sentierak, kezkak,... jasotzen ditu. Idazkera azkarra eta aberatsa benetan, bai hitzez, aditzez, esaldiz eta ideiaz. Erabiltzen dituen gai orokorrak bizi ak eta interesgarriak baldin badira ere, eskaintzen duen idazkerak egiten digu irakurgarriago. Euskara aberatsa eta jostakorra, nornahik gustora hartzekoa. Beti gauzen barati begiratuz eta jarraituz eta inguruko ibilian lili eta pitxisti bilduz. Eta erraz eta taxuz ateratzen zaizkio Bordari, bere iparraldeko eskua eta horrek ematen dio pronart bere bizitzan bildu duen azken baten, eleberri hau, badirudi, amai bian urdaiza ere, moriazko lana dela. Mezurik ez badakar ere, gure literaturan dadin garai baieko gizonen historia zer izan den; Arabako Ibarrolaleen begi-ninletan, zentzuaren etheran, bihurcen dagoena. Memoria handi eta luze baten ematiza, bi zizinak berak bezala gogoratzen dituen gauzak, eta gizon kamarkeak bezala, ez ezer ez arriaren bidez holako kondaira esatu ahal izan dezaten.*

Zorionak bi anaieri, eta betoz ahalik lasterren Bordarirenak diren idazle eraginkorraren lanak.

Juan SAN MARTIN

Recientemente, con motivo de celebrarse una Feria del Libro, Fuenterrabía ha tributado un merecido homenaje al escritor Fernando Artola "Bordari", en el que me correspondió intervenir con una breve disertación sobre su vida y su aportación literaria.

Bordari es un fecundo escritor en vascuence y gran parte de su obra aún permanece inédita (según noticias, durante el presente año dará a la luz sus obras completas en tres tomos la casa editora Sendoa de San Sebastián). Los géneros que ha desarrollados son la poesía, cuentos, narraciones cortas, teatro y novela. Al publicar las obras completas, piensa incluir también conferencias y sus ensayos sobre el bersolarismo.

Los más destacable de su labor literaria, probablemente, son la poesía, el cuento y los breves relatos. Resulta muy dichero y sabe armonizar su prosa de manera poco frecuente en la literatura euskara, que unido a su frase corta, le da una viveza singular para proporcionar fácil y amena lectura. Ha desarrollado mucho el tema marino y es, probablemente, el autor que más y mejor ha tratado el paisaje, las costumbres y vivencias de la cornisa cantábrica. Su poesía, en general, es dulce y lírica. Para una aproximación a su descripción, podría decirse que puede sernos valedera, comparativamente, la correspondiente de la poesía de Aresti con la pintura de Ibarrola, y la de Fernando Artola "Bordari" con la línea de matices y colorido de los artistas bidasotarras que van desde Montes-Iturriozengandik a Gracenea.

Ha publicado en **Euzko-gogoa**, **Aránzazu**, **Olerti**, **Egan**, etc.; en forma de libro, su única obra es **Goraintzi** (1968). Y ahora acaba de publicar una novela en colaboración con su hermano Rafael, **Aritz beraren adarrak**, con colaboraciones de su vida ubicada en Fuenterrabía, con una amplia tintana abierta a los aconteceres del resto de Europa.

Y nunca deberemos olvidar que Bordari fue uno de los iniciadores de temas culturales vascos en época de prohibición, así como de los que trabajaron en el restablecimiento de los certámenes de bersolaris. Un escritor ameno y un hombre a quien la cultura del país le debe mucho.

Santio bideak Araban

Konpostelar Urtz Saindua ospatzen ari gara aurten eta egunkari nahiaz aldizkariek ospakizun honen inguruan eratzen ari den zenbait ekintzaren berri ematen digute. Milaka izango dira Santiago apostolua ehortzia ei dagoen tokiraino hurbilduko diren erromesak. Garraio sistema desberdinik erabiliko da haraino iristeko. Batzuek besteak baino sofistikatuagoak. Aurrerapenak markatzen duen konpasaren arauera.

Atzo balitz bezala dut oraindik gogoan 1.965.ean neronek egindako bidai hau, eta ez dut uste inoiz damutuko naizenik egun haietan bizi izan genuen esperientziarengatik.

Zernolako kalkulugailu erabili beharko genuke Santiagoraino heldutako erromesen zenbakia zein den ateratzeko? Sekulan ez da jakingo. Nolanahi ere, gauza batez bai ziurtasunez mintza daitekeela. Erromesek mendeetan zehar gehien erabilitako sistema, ezagutzen denik zaharrena dela esan genezake, hots, bide luze eta –askotan– zailak, oinez izan direla gaindituak. ***"Frantses bidea"*** *(Via Láctea) izan da gizaldietako erromesen gidaririk ziurrena, helburu bakar batek eraginda Europa osotik irtetzen ziren ibilkariek zerura begira zuzentzen baitzituzten heuren urratsak, izarrek markatzen zieten bideari jarraitzen ziotelarik.*

Arabak ba du zerikusirik Espainiako Santiagora eginiko erromerietan. Eta zerikusi haundia esango nuke, probintziatik igarotzen baitzen lehen Santio-Bidea. Menendez Pidalen ústez, lehen bide hau Araba eta Asturiasetik zihoan, erromesak mairuen erasoaldietatik ihes egin ahal izateko. Bestalde, "erromatar galtzada" dugu, erromeriak hasi baino lehenago eginda-noski, eta oso erabilia izan zen Santiagoraino iristeko, batez ere Europatik zetorren erromesei dagokienez. Araban, Puentelarra, Iruña, Margarita, Armentia, Arkaia, Dulantzi, Gazeo, Agurain eta Eginotik igarotzen zen.

Baina, dirudienez, erromesek gehien erabilitako bidea San Adrian haitzulotik igarotzen zena da. Gipuzkoatik zehar ibili ondoren, Zegaman San Adrian mendiraino igo behar zuten eta handik bi aukera zituzten: erromatar galtzadari zuzen jarraitu ala Galarretatik Aguirainera, Zalduondo atzean utzi ondoren, eta Aguraindik erromatar galtzadara. Ba da hirugarren bide bat: Galarreta, Luzuriaga, Gebara, Gasteiz. Eta ez dut mugaketa honekin esan nahi Arabatik igarotzen ziren erromesak bide hauetatik bakarrik ibiltzen zirenik. Ba ziren beste batzu, baina ez dut uste hainbeste garrantzirik dutenik. Esaterako, Oinati, Arrasute, Lenitz Gatzaga, Ullibarri Ganboa, Arroiabe, Mendibil, Durana, Gasteiz... herriak zeharkatzen zituena XVIIIgn. mendetik nahiko erabilia izan ei zen.

Bide guzti hauetan ematen den konstantea **ospitala** *da, erromesen ospitala, halegia. Aterpe hoietan erromes txiroak ohe bat aurkituko du, ogi, gazta eta ardorik dohan eskaintzen zaion batera. Santio Bideak moeta honetako ospitalez beterik aurkitzen zirela esan daiteke, hoietako batzuen ospea gureganaino iritsi direlarik. Aguraingo San Lazaro eta Magdalena, Gasteizko Santa Maria, San Lazaro, Santiago, San Pedro, San Jose... bidean aurkitzen ziren enzute haundikoak ditugu. Ospitalak partikularrek sortzen zituzten gehien batez; beste batzuetan Udalek edota zenbait erlijios-ordenak.*

Errez uler daitekeen bezala, Santio Bideetatik urte eta mendeetan zehar igarotako giza jarioak here ikurra utzi zuen Araban eta hori artean ez ezik, baita santuekiko debozioan ere ikus dezakegu. Dakigun legez, Andra Mari Zuria eta San Miguel Nafarroatik iritsi ziren bi adbokazio dugu. Eta nola ez aipatu Santa Ana, Santa Marina, San Lazaro eta Magdalena...?

Artea aitatu dut lehen eta zeredozer gehiago azpimarratu nahi nuke. Kanpotik heldutako ibilkariek Arabako artean heuren ezaugarria utzi dute, erromanikoak adierazpen berezi bat erakusten duelarik. Arabak, bere aldetik, ez al du arte tendentzi hoietan eraginik izan? Ez nuke ezetz esango. Beti ematen baita honelako sinbiosis bat bidalari eta bisitatutako lekuen artean, eta ikusi ahal izan dugun bezala, Araba arras ezaguna zen Santio Bideak egin nahi zituztenentzat. Armentiako kasua, esaterako, horixe dago. Jakintsu batzuen eritziz, basilika Bideetako elizarik berezko eta tipikoena da, esandako elkartasun hori argi eta garbi ikus daitekeelarik. Berdina esan daiteke Estibaliztzeko basilikari buruz, hura ere erromesen beharrezko geltokia baitzen.

Araba zabalik egon da aintzinatik bere Bideetatik igarotako mugimendu guztiei. Eta honek aberastasun bat adierazi du, zer esanik ez, herrialdearen kulturan, berea baztertu gabe kanpoko elementu berritzailerik hartu baitu. Kanpoko kultur agerpideekin izandako ukitzeak –ez ahaztu Europako nazio guztietako jenderik igaro denik– aurrerapide onik eskaini dio Arabari eta hau beti eskergarria da. Baina lehen esan dudan bezala, probintziak ere bere emaitzik egin du, erromesen beraien manifestaldietatik ezagut daitekeenez. Santio Bideak Araban. Garrantzi haundiko bideak.

Jose Mari VELEZ DE MENDIZABAL

Agosto de 1965. Al amanecer del día 18 salía de Mondragón rumbo a Santiago de Compostela un grupo de estudiantes de sexto curso de bachiller. Era nuestro viaje de estudios. Aprovechábamos el acontecimiento que supone el año compostelano para visitar la tumba del apóstol de la luenga barba. Todo estaba planificado. Pepe, el conductor, debía llevarnos en su autobús, "Manolo", por un de las rutas jacobeas elegidas por el organizador del viaje. Y creo que acertó en la elección, ya que el viaje nos causó una grata impresión. Hoy, recordando con nostalgia aquellos días, siento envidia de los que, como en el caso de los 22 universitarios vascos que hacen a pie el recorrido Mauleón-Santiago como complemento de sus estudios, vuelven a las antiguas rutas jacobeas. Que esta experiencia sirva para un conocimiento más exacto de aquellos caminos que atravesaban nuestro País. Suerte.

Efectivamente, el País Vasco ha sido paso obligado de muchos de los peregrinos a Santiago. Y, no hay duda alguna, este hecho ha marcado su sello en temas tan variados como el arte, el idioma, la toponimia... Alava ha sido la provincia vasca más utilizada por esos caminantes, y a través de ella se han detectado diversas rutas que, indistintamente, eran recorridos por ellos, que se han llevado mejor o peor recuerdo de su paso por entre nosotros, pero que, indudablemente, han constatado la existencia de un País distinto.

Rutas de las que comenzamos a tener conocimiento hace ya más de 1.200 años, durante el reinado de Alfonso el Casto. Aprovechando la calzada romana existente. Astorga-

Burgos, fue esta ruta la más utilizada en un principio. Ahora, el peregrino ha utilizado de preferencia la que entraba en Alava por el túnel de San Adrián, pasando por Galarreta, Luzuriaga, Gebara, Gasteiz, Ali, Jaba a Galarreta, donde se unía a la caminante podía elegir entre seguir por la calzada, o a través de la Sierra de Zalduondo, para llegarse hasta Salvatierra, desde el que, tras descansar en el Hospital de Peregrinos, seguía su camino por la calzada. Por el contrario, si optaba por la ruta más rápida, pasaba por Zalduondo y llegaba a Vitoria-Gasteiz. Guevara y llegaba a Vitoria-Gasteiz. Ésta, por Armentia, Elburgo, Gamarra Mayor, Ali, Jaba de Aguraingo, Eginotik, Dulantzi, Ilbeta, Iruña, Puentelarra, Arkaia, Arroiabe, Gaceo, Arcaya, Ali, Gasteiz